

## **“HERNANIKO KULTUR ONDAREA” 2022 / 2023**

***Hernaniko Udalak honako deialdia egiten du, Hernaniko Kultur Ondarearen inguruan lanak egiteko.***

### **1. Helburua**

Deialdi honen asmoa Hernaniko Kultura Ondarea osatzen duten elementuak, ondare materiala (higiezina eta/edo higigarria) zein materiagabea aztertzea da, bi helbururekin. Batetik, dagoen ondare-elementuen inbentarioa eta zerrenda eguneratzea eta osatzea; eta, bestetik, lehendik dagoen dokumentazioa berrikustea eta eguneratzea.

Gaia landu eta osatzeko iturri ezberdinetara jo beharko dituzte hautagaiek: iturri dokumentaletara, bibliografikoetara, grafikoetara edota ahozko transmisioko iturrietara, besteak beste.

Lana argitaratzeko eskubidea, behin epaimahaiak oniritzia emanda, Hernaniko Udalak izango du. Hori, euskarri desberdinetan egin daiteke, besteak beste, **[www.ondarea.hernani.eus](http://www.ondarea.hernani.eus)** web gunean.

### **2. Aurrekontua eta programa**

Deialdi honetarako 8.000,00 euroko diru kopurua dago Hernaniko Udaleko 2022. urterako aurrekontuaren partida honetan: 02.480.01.920.30 (2022) “Beka: Kultur Ondarea”.

### **3. Onuradunak**

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenak bakarka nahiz taldean aurkez daitezke.

### **4. Eskabideak**

Deialdi honetara aurkezten direnek eskaera-orri ofizial elebiduna edo euskara hutsezkoa erabiliko dute. Bai eskaera-orria, bai behar duten dokumentazioa eta informazioa, [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web gunean aurkituko dituzte, baita honako lekuan ere:

#### **hHz – Herritarren Harrera Zerbitzua**

Hernaniko udaletxea, beheko solairua  
Astelehenetik ostiralera, 08:00 - 14:00  
Asteartetan / Ostegunetan: 08:00 - 18:30

Eskaera-orriak Udal erregistroan aurkeztu behar dira, eta horiekin batera honako dokumentazioa:

- a. Eskabide normalizatua, eta bertan dauden aitorten guztiak sinatuta.
- b. Kontu korrontearen zenbakia eta kontuaren jabe dela erakusten duen aitortpena.
- c. “HERNANIKO KULTUR ONDAREA” jartzen duen gutun azal batean aurkeztu beharko dira: lan proiektuaren izenburua eta deskribapena (izenburua, lan metodologia, kronograma, baliabideak...), eskatzaile guztien harremanetarako datuak, NAREN edo IFKren fotokopiak eta eskatzaileen curriculumak.

Edonola ere, dokumentazio honetaz guztietaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, proiektua behar bezala baloratzeko.

### **5. Hizkuntza**

Proiektuak eta lanak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan aurkeztu ahal izango dira; hala ere, Hernaniko Udalak euskaraz garatutakoak baloratuko ditu, bereziki.

## **6. Epeak**

Eskaerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratzen direnetik hilabete beteko epean aurkeztu behar dira.

Baldin eta eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan-eguneko epea izango dute zuzentzeko edota osatzeko. Gainera, ohartaraziko zaie hala egin ezean, eskaera bertan behera geratuko dela, eta, horrenbestez, artxibatuta.

## **7. Epaimahaia**

Epaimahaia honela eratuko da: Kultura Arloko zinegotzi delegatua, Udal Artxiboko teknikaria eta Ondarean aditua den pertsona bat.

## **8. Balorazioa**

Aurkeztutako eskabideak epaimahaiak baloratu dituzte, bai eta aztertu eta ebaluatu ere, kalitatezkoak eta bideragarriak izatea bermatuz.

Aurkeztutako proiektuak egoki baloratuak izango ez balira, deialdia eman gabe uzteko eskumena izango du epaimahaiak.

## **9. Zenbatekoa eta ordainketa.**

Kopuru ekonomikoa 8.000 eurokoa (zergak barne) izango da, eta bi zatitan banatuko da: %50 proiektua hautatutakoan, eta beste %50a lana bukatuta, azken txostena aurkeztu eta epaimahaiak oniritzia ematen duenean.

Hautatu bat baino gehiago izanez gero, guztien artean banatuko da kopurua.

## **10. Erabakia eta berri ematea.**

Erabakia jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu guztietan eskatzaileei erabakiaren berri emango zaie, eta argitaratu eta publikoa egingo da.

## **11. Jarraipena**

Epaimahaia osatzen dutenak izango dira proiektuaren jarraipena egingo dutenak.

## **12. Iraupena**

Proiektua aukeratu eta hurrengo egunetan hasiko da lana, eta azken txostena bederatzirako hilabetera aurkeztu beharko da.

## **13. Jabetza Intelektuala**

Jabetza Intelektualari dagokionez, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuko Testu Bategina aplikatuko da.

## **14. Oinarriak onartzea**

Deialdi honetara aurkezteak oinarri hauek guztiak onartzen direla esan nahi du. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoeraren aurrean, epaimahaiak erabakiko du.

## **15. Ez betetzea.**

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada, eskaera berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu egin daiteke, eta emandako diru kopurua itzuli egin beharko da. Kasu guztietan, interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.